

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

228/2016 Foru Agindua, irailaren 28koa, behin betiko onartzen duena Donemiliagako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketa puntualaren espedientea, zenbait baldintzarekin

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Donemiliagako Udalak, 2015eko martxoaren 11ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea arau subsidiarioen lehenengo aldaketaren espedienteari, Egilazko herriguneko 1 poligonoko 179 lurzatiari hiri lurzoru sailkapena kentzearen eta 1 poligonoko 186 lurzatiaren lerrokadurak aldatzearen gainekoari; bai eta espedientea jendaurrean jartzea ere. Horretarako, iragarkiak argitaratu ziren 2015eko maiatzaren 4ko ALHAOn (53. zk.) eta 2015eko otsailaren 15eko El Correo egunkarian, eta jakinarazpena bidali zitzaien udalerriko administrazio batzarrei.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2015eko abenduaren 22an egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, eta erabaki zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak Donemiliagako arau subsidiarioen lehenengo aldaketaren espedienteari eragozpenik ez jartzea erabaki zuen, Arabako Hirigintza Planeamenduaren Atalaren ekainaren 9ko 3/2016 bilkuran.

Laugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren azaroaren 27ko 405/2015 Foru Aginduaren bidez, Donemiliagako arau subsidiarioen lehenengo aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoaren aldeko txostena egin zen, baldintza batzuekin, eta agindu hori 2015eko abenduaren 4ko ALHAOn (142. zk.) argitaratu zen.

Bosgarrena. - Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2016ko ekainaren 21ean sartu zen idazki baten bitartez, Donemiliagako Udalak Donemiliagako udalerriko arau subsidiarioen lehenengo aldaketaren espedientea bidali zuen, behin betiko onartu zedin.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Partikular batek sustatu eta Donemiliagako Udalak izapidetutako espedienteak xede hauek ditu:

1. 1-179 lurzatiaren hirigintza sailkapena aldatzea (hiri lurzoru izatetik urbanizaezin izatera igaroko da).

2. Birsailkapen horren ondorioz, eta zentzurik ez daukanez udalaren indarreko hirigintza araudian adierazitako jardun batek, alegia, aipatutako lurzatiarako bakar-bakarrik zerbitzu emango duen hiri bide bat egiteak (proposamen horren bitartez, herriguneko lurzoru urbanizaezinean egin beharrekoa), aldaketa honek proposatzen du ibilgailu sarbide hori ezabatu dadila.

3. 1-186 lurzatiaren lerrokadura birdoitzea, antolamendutik kanpo utzi ez dadin "Hornero" deritzon eraikina; horretarako, lerrokadura hori eta eraikin horren fatxadaren gehieneko lerroa bat etorrarazi dira.

Bigarrena. Horretarako, dokumentuak honako hauetan justifikatzen du aldaketa hori:

1. 1-179 lurzattia birsailkatzeari dagokionez, lurzoru hori ezin dela erabili udalaren indarreko planeamenduan finka hori hartzen duen esparrurako (R 6.2 zona) zehaztutako erabilera xehatuetarako eta eraikuntza motetarako, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 13.2.b artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta.

2. 1-186 lurzatiaren bidearekiko lerrokadura aldatzeari dagokionez, agiri teknikoan azaldutakoaren arabera, indarreko lerrokadurak izateko arrazoia eta, beraz, Mentalde kalea zabaltzearena da 1-179 lurzatiarako sarbidea erraztea, zeina hiri lurzoru gisa sailkatuta baitago. Baldin aldaketa honen bidez lurzoru hori urbanizaezin sailkatzen bada, ez dauka zentzurik gaur egungo lerrokadurak mantentzeak, ez baita behar izango ibilgailuentzako hiri sarbiderik egite-rik landa finka horretara, eta 50 urte baino gehiago dituen "Hornero" eraikinaren zati bat ere ez da eraitsi beharko. Hortaz, proposatzen da gaur egun arau subsidiarioetan jasotako bideen lerrokadura, aipatutako eraikinaren mugakide den 1-186 lurzatiaren zatian, bat etorri dadila, gutxi gorabehera, eraikuntza lerroarekin.

Hirugarrena. Espedientea eta agiri teknikoa aztertuta, erabaki da haren onarpenari ezin izango zaiola inolako eragozpenik jarri.

Dena den, Donemiliagako udalerriko hirigintza planeamendua eta hirigintzako legeria aplikagarria kontuan hartuta agiria azterturik, zuzendu beharreko zenbait alderdi antzeman dira, ondoko atal hauetan zehazten direnak, hain zuzen:

1. Agiri teknikoan, kendu egingo da abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, xedatutakoa aplikatzearen ondorioz ingurumen ebaluazio estrategikoa egitetik salbuesteari buruzko epigrafe osoa.

2. Bestalde, lerrokadura aldaketaren justifikazioa, honako hau dioena:

"Aurrekoaz gain, kontuan izan behar da arau subsidiarioetan aurreikusitako atzeratzea bidearen bazterretako baterako baino ez dela proposatu, lehendik ere eraikin bat ('Hornero' eraikina) dagoen bazterrerako, eta gaur egungo lerrokadurari eutsi ahal zaio bidearen beste bazterrean, zeinetan ez baitago eraikinik; hori ez da bidezkoa, jakina, eta ez dauka inolako justifikaziorik..."

zaharkituta geratu da, 1-190 lurzatian eraikuntza egin baita. Beraz, aipu hori kendu beharko da.

3. Aldaketaren proposamen grafikoari dagokionez:

— Lerrokaduraren zati bat ez dator bat katastroan jasotako lurzatiaren muga lerroarekin, eta hori konpondu behar da.

— Aldaketa honen helburuetako bat da udalaren hirigintza araudian proposatutako bidea kentzea, ez delako beharrezko izango 1-179 lurzatiari landa sailkapena jartzen zaionean, lurzati horretarako bidea baita. Horregatik, eta bide gisa sailkatuta dagoen lurzoru zati hori urbanizata ez dagoenez, lurzoru urbanizaezin sailkatu beharko da.

4. Proposatutako planoen karatulan hori adieraziko da, indarreko arau subsidiarioei dagozkienetik bereizteko. Gainera, 2.2 serietik aurkezteke daude "Asparreneko industrialdea. Okiturriko industrialdea" zonaren gaur egungo planoak eta proposatutakoa, Egilazko herrigunea ere sartu delako.

Laugarrena. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, aurkeztu behar diren agiri guztiak aurkeztuko dira, adierazitako zuzenketarekin batera, fitxategi editaezinetan (*.pdf luzapena) zein fitxategi editagarrietan (zehazki, planoak *.dwg formatuko fitxategietan — arkatzen fitxategia erantsi behar da, *.ctb formatukoa edo *.shape fitxategietan, eta testua *.doc fitxategietan).

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Donemiliagako planeamenduko arau subsidiarioen 1. aldaketa puntualaren espedientea, baldintza hauekin:

– Agiri teknikoan kendu egingo da abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, xedatutakoa aplikatzearen ondorioz ingurumen ebaluazio estrategikoa egitetik salbuesteari buruzko epigrafe osoa.

– 1-190 lurzatian eraikinik ez dagoelako lerrokadura aldaketaren justifikazioa zaharkituta geratu da, eta kendu egin beharko da, etxebizitza bat eraiki delako.

– Aldaketaren proposamen grafikoan, lerrokaduraren zati bat ez dator bat katastroan jasotako lurzatiaren muga lerroarekin, eta hori argitu behar da. Bestalde, hiri lurzoru izatetik urbanizaezin izatera aldatuko da 1-179 eta 1-186 lurzatiek eta hiri lurzoruaren mugan dagoen bide tartea, agindu honen oinarrietan azaldutakoarengatik.

– Aldatutako planoen karatulan hori adieraziko da, indarreko arau subsidiarioei dagozkienetatik bereizteko. Gainera, 2.2, 3 eta 4 serietik aurkeztu beharko dira "Asparreneko industrialdea. Okiturriko industrialdea" zonaren gaur egungo plano eta proposatutakoa, Egilazko herrigunea ere sartu delako (3 eta 4 seriean hiri lurzoruaren mugaketan baino ez du eragiten, ez baita jaso legendako zehaztapen gehiagorik).

– Aldaketa horiek euskarri informatikoan jasoko dira, eta berriro aurkeztu beharko da agiri teknikoaren edukia nola fitxategi editagarrietan hala editaezinetan.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezten eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke zuzen-zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 28a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO